

UEMAko kide izatea erabaki du Berrobiko Udalak

Tolosaldeko 28 herrietatik 23 izango dira mankomunitateko kide; abenduaren 16ko batzarrean aztertuko du eskaera UEMAk // 3

Intentsitatearen eta doinu melodikoen arteko oreka bilatuz

Metalcore generoa lantzen du Nunk musika taldeak; bost kideetatik hiru eskualdekoak dira, eta abenduaren 16an Bonberenean eskainiko dute eskualdeko lehen kontzertua // 4

Euskal Herriko Mugimendu Feministaren greba deialdia dela eta, 'Ataria'-k bihar ez du egunkaria argitaratuko.

Hurrengo argitalpena abenduaren 1eko astekaria izango da.

Eguzkitza Sagardotegia TAKE taldeak irabaziz hasi du denboraldia

Lehen zazpi partidak irabazi ditu saskibaloiko emakumezkoen lehen taldeak; maiatzean jokatu den igoera fasean sartzea dute helburu // 7



ALEGIA ERREPLIKA BEREZIA

Duela 120 urte, gaurko egunez hondoratu zen 'Joven Julian' ontziaren erreplika egin du Iñaki Mezquita tolosarrak, ontziko kapitainaren birbilobak eskatuta; abenduaren 15etik aurrera Alegiako kultur etxean egongo da ikusgai // 6

JOSU ARTUTXA

ehun

FISIOTERAPIA

Tel.: 633 04 94 74
www.ehunfisioterapia.eus

TORNULARIAK

Lehen mailako ofizialak behar ditugu CNC tornuan lan egiteko.

Interesatuak bere CV ondorengo helbideetako batera bidali beharko dute
2023/12/01 baino lehen:

Talleres Mitxelena, Koop.
Eziago poligonoa 21 · 20120 Hernani

info@talleresmitxelena.eus

mitxelena
LARGE-SCALE CUSTOM MACHINING



‘Ataria’-ko lantaldeko kideek bat egin dute biharko greba feminista orokorrarekin. ATARIA

‘Ataria’-ko lantaldeak bat egin du greba feminista orokorrarekin

Greba deialdia dela eta, ‘Ataria’-k ez du papereko egunkaririk izango bihar eta webgunean greba deialdiari lotutako albisteak bakarrik jorratuko ditu

Erredakzioa Tolosa

ATARIA-ko langileek greba feminista orokorrarekin bat egitea erabaki dute, eta, beraz, bihar, azaroak 30, ez da argitaratuko papereko egunkaririk eta egun horretan webgunean grebari buruzko albisteak soilik argitaratuko ditu.

Era berean, hilaren 30ean ez da administrazio lanik egingo eta ezingo zaie zerbitzurik eman Atarikideei eta bestelako bezeroei. Ostiralean ATARIA asteak argitaratuko du ohi be-

zala, baina horretarako lanak aurreratu behar izan ditu, aste-rikiko itxiera egun bat aurreratu behar izan duelako.

WEBGUNEAK

Aipatu bezala, greba feminista orokorrak ematen duen guztia *Ataria.eus* webgunean jasoko da.

Goizean goizetik greba egunari lotutako informazioaren jarraipena egingo du ATARIA-k; enpresa eta komertzioetan izan duen eragina, herriz herri egingo diren mobilizazio eta deial-

diak, eta arratsaldean Tolosan egingo den eskualdeko mobilizazio orokorra.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak antolatu duen lehengo greba orokorra da azaroaren 30ekoa, eta «zaintza eskubide kolektiboa» da horren aldarrikapen nagusia.

ATARIA-ko langileek bat egin dute egindako aldarrikapenekin eta zaintza sistemako langileek lan baldintza duinak behar dituztela izan uste dute arreta kalitatezkoa eta duina izan dadin.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zerbitzaria. Tolosako Igarondo tabernarako esperientzia duen zerbitzaria behar da, goizeko ordutegian, astelehenetik larunbatera lan egiteko. Arratsaldeak eta igandeak jai. Interesa duenak deitu 619 364 196 zenbakira (Ainhoa).

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefonora, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIAko bulegotik.

Itaiak «benetako» aldaketa baten alde egingo du

Greba feminista orokorrerako greba deialdi propioa egin du eta aldarria ‘Lan eta bizi baldintza berdinak denontzat’ dela aldarrikatu

Erredakzioa Tolosa

Itaia mugimenduak Euskal Herriko Mugimendu Feministak biharko deitu duen greba feminista orokorrari lotuta galdetu du ea benetan zeinen interesak ari diren defendatzen. Amaia Iparragirre eta Estitxu Moyano Tolosaldeko Itaia mugimenduko kideek azken garaian sumatzen den langileen lan baldintzen okertze nabariari jarri dute azpi-marra. «Zein da benetan arazo guzti horien erroa? Galderari erantzuteko, ezinbestekoa deritzogu gaur egun bizi dugun krisi testuinguruari buruz hitz egitea». Zentzu horretan esan dute sistemaren antolaketa kapitalista «bere bukaerara gerturatzen ari den honetan» langile klasea ari dela ondorio horiek pairatzen. Horrek guztiak biharko deitutako greba deialdiarekin zerikusia duela uste dute; «aipatu dugun krisi testuinguru horretan, non lan sektore desberdinen baldintzen okertze bat ematen ari den, zaintza arloa ez da salbuespena».

Zaintza arloa prekaritateak definitu ohi duela uste dute eta gogoratu dute historikoki lan baldintza txarrak dituen sektorea dela. «Hori ez da ausaz gertatzen, zaintza arloa orokorrean lan sektore feminizatua da, hau da, subjektua emakume langilea du, emakume langile atzeritarrak kasu askotan». Horri lotuta gehitu dute emakume migra-

tuen, arrazializatuen eta ijitoen erakunde desberdinek haien iritzia mahai-gaineratu dutela greba feministaren harira. «Beraien hitzetan, grebarekin problematizatzen ari den zaintzaren auziari, hau da, emakume langileen egoera prekarioari aurre egiteko gaur gaurkoz jartzen diren mekanismoak zalantzan jartzen dituzte».

ITAIAREN PLANTEAMENDUA

Itaiaren planteamendua erabat desberdina dela esan dute Iparragirre eta Moyanok eta euren proposamenaren gakoa instituzioetatik kanpo antolatzea denez, euren greba deialdirako aldarria *Lan eta bizi baldintza berdinak denontzat* dela esan dute. «Beraz, langile guztientzako –atzeritarrentzat, kontratu gabeentzat...– benetako aldaketa positibo baten alde egiten dugu. Horretarako, instituzioen limosnei uko egin eta alternatiba sozialista eraikitzea da gure hautua».

Zaintzaren auziari berezkoa duen garrantzia eman behar zaiola uste dute eta kaleak hartzeko deia egin dute, «beti ere lan eta proposamen politiko batzuen barruan oinarrituta».

DEIALDIA, DONOSTIAN

Itaiak bere greba deialdi propioan parte hartzeko deia egin du eta gogoratu mobilizazioa egingo dutela bihar 13:00etan Donostiako Boulevardean.



Amaia Iparragirre eta Estitxu Moyano Itaiako kideak. ATARIA

100 ahots biltzeko erronka jarri du Galtzaundik

Gaitu kanpainarekin bat eginez, herritarrei esaldiak grabatzeko deia egin die; kultur etxean egingo dute, larunbatean

Erredakzioa

Galtzaundi Euskara Taldeak *100 ahots baietz!* maratonia antolatu du larunbaterako, Gaitu kanpainarekin bat eginez. Euskaldunok aurrean dugun desafioetako bat egunero erabiltzen ditugun mugikorrek, ordenagailuek eta bestelako tresna teknologikoek euskaraz egitea eta ulertzea dela iritzita antolatu dute maratonia.

Tolosako kultur etxeko areto nagusian burutuko dute erronka, 10:00etatik 18:00etara bitarte. Tarte horretan azaltzen diren boluntarioek bertan egongo diren ordenagailuen aurrean jarri eta azalduko diren esaldiak irakurri beharko dituzte, ahotsa grabatuz. Hori egiteko 30 minutuko txandak antolatuko dituzte eta beharrezkoa izango da aurretik izena ematea. Galtzaundik esan du ez dela ordenagailuekin trebezia berezirik behar parte hartzeko eta laguntza behar izanez gero, bertan izango direla boluntarioak. Galtzaundiren webgunean dagoen formulario bidez eman daiteke izena.

«Euskara moduko hizkuntza gutxiituak ez daude enpresa teknologiko handien asmoetan. Beraz, gure hiztun komunitateak aparteko ahalegina egin behar du bide propioa egiteko. Zenbat eta ahots gehiago lortu, hobeto. Tolosaldean 100 baietz!», esan dute Euskara Taldetik.

BI HITZALDI

Bestalde, euskararen aurkako ondarraldi judizial bete-betean, herritarren hizkuntza-eskubideak zein diren azaltzeko eta urraketan aurrean nola jokatu lantzeko hitzaldia izango da gaur Anoetan, Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta. *Herritarron hizkuntza-eskubideak* auzitan izenburupean saioa udaletxeko pleno aretoan izango da, 18:00etan, hasita, eta Behatokiko zuzendari Agurne Gaubekak emango du. Euskaraz bizi nahi duten herritarrei, oztopoak gainditzeko gakoak azalduko zaizkie, eta euskaraz bizitzeko nahia egunerokoan eta praktikan errealitate bihurtzeko zer egin ere landuko da.

Tolosan ere hitzaldia antolatu du Galtzaundik. EHUKo irakasle eta legelari Iñigo Urrutiak *Nola atera gaitezke eraso judizialen labirintotik?* izenburupean hitz egingo du, gaur, 18:30ean hasita, kultur etxeko areto nagusian. «Hizkuntza politika egiten ari dira epaileak, eta ez dagokie», aipatu zuen Urrutiak *Berriak* delako gutxi egindako elkarrizketan. Izan ere, euskararen biziberri-tzearen kontrako sententzia ugari ari dira ematen. «Gainera, argi dago ez direla kasu konkre-tuak: euskararen kontrako eraso eta estrategia judiziala da aurrean duguna; olatu erreakzionarioa, atzerakoia eta euskarafobia», esan dute Galtzaunditik.

UEMAko kide izateko erabakia hartu du Berrobiko Udalak

Tolosaldeko 28 udaletatik 23 izango dira UEMAko kide; abenduaren 16an du UEMAk batzar nagusia, eta orduan aztertuko dituzte herri berrien eskaerak

Erredakzioa Berrobi

Berrobiko Udalak UEMAko kide izatea erabaki du. Atzo eginiko osoko bilkuran hartu zuten erabakia, Berrobi Bizi herri plataformako 5 ordezkarien aldeko botoekin eta PSE-EEren zinegotziaren aurkako botoarekin. Abenduaren 16an du UEMAk batzar nagusia, eta batzarkideek orduan aztertuko dituzte herri berrien eskaerak. Berrobi gehituta, Tolosaldeko 28 udaletatik 23 izango dira UEMAko kide.

Datu soziolinguistikoei dagokien, euskaldunen indizea %87,5 da Berrobin, baina behe-ranzkoa da joera, beste arnasgune askotan bezala. Euskara lehen hizkuntza duten herritarren ehunekoak hamar puntu egin du behera azken 20 urteotan: %62 da gaur egun. Etxeko erabilera-beheranzkoak ere kezkatzen du udala. Izan ere, 20 urtean 15 puntu egin du behera, eta euskara herritarren %46rentzat da lehen hizkuntza etxean, gaur egun. Aldagai horiek gero eragina dute kaleko erabileran ere. Horregatik, herritarrak kontzientziatzeko eta UEMArekin zein Tolosaldeko beste udalerriekin batera hizkuntza politikan eragiteko asmoz hartu du Berrobiko Udalak UEMAn sartzeko erabakia.



Eskualdeko 28 udaletatik 23 izango dira mankomunitateko kide. I. URDAPILLETA

UEMAk abenduaren 16an du egitekoa urte amaierako batzar nagusia Orion, eta orduan aztertuko dituzte herrien eskaera berriak. Eskaerak onartzean, UEMAko kide den 105. udalerria izango da Berrobi.

Nagore Segurola Berrobiko Euskara zinegotzia gustura agertu da gaur hartutako erabakiarekin. Udaleko osoko bilkura amaitzean esan duenez, orain heldu diote UEMAko kide izateko aukerari: «Izan ere, ekainean hartu genuen udalaren gidaritza. Harrigarria iruditzen zitzaidan Berrobi UEMAko kide ez izatea.

Egia esan, erronka pertsonal modura hartu dut, oso garbi ikusten bainuen bertan egon behar genuela. Taldekideen babesarekin baiezkoa eman diogu». Behin erabakia hartuta, hasiera batean udal barruko erabilera planari emango diote hasiera, langile guztiekin bilduz eta erabakiaren nondik norakoak azalduz: «Izan ere, hizkuntzaren alorrean gaur egungo funtzionamenduan aldatetak egongo dira, lehen mailan jarritik euskararen erabilera alor desberdinetan, eta baita administrazio desberdinen arteko harremanetan ere».

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 130 € • Harpidedunentzat 65€

HANDIA (124mm X 63,5mm): 180 € • Harpidedunentzat 90€

ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 80 € • Harpidedunentzat 40€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:00k arte hartzen ditugu

Hiru urtez kantuak grabatu gabe eta kontzertuak egin ezinik ibili ondoren, martxa hartuta dator metalcore generoa lantzen duen Nunk musika taldea; bost kideetatik hiru eskualdekoak dira

Harmonia zainduz, intentsitate bila

Josu Artutxa Dorronsoro

Duela hiru urte sortu zen Nunk musika taldea. Lehengo, Eztanda taldean aritu ziren Ion Garate bateria-jotzaile belauntzarra eta Aitor Azkolain gitarra-jotzaile ibartarra, eta taldea uztea erabaki zuten, taldekideek helburu eta funtzionatzeko modu desberdinak zizutela eta. Orduan, Aitor Amonarriz gitarra-jotzaile billabonatarrekin eta Unax Larreta abeslari hernaniarrekin elkar-tu ziren Garate eta Azkolain.

Gerora, sare sozialen bitartez, baxu-jotzaile baten bila zebiltzala zabaldu zuten, eta Unai Garcia andoaindarrarekin egin zuten topo. «Ezkutuan zegoen altxor bat da; oso ondo egin zuen bat taldearen izaerarekin», adierazi du Garatek. «20 urte besterik ez ditu eta jakintza handia eta ikuspegi oso zabala du musika munduan», gaineratu du Azkolainek. Ondorioz, boskotea osatuta, talde gisa entseatzen hasteko aukera izan zuten.

Taldearen izena nondik datorren galdetuta, taldekideek esan dute ez duela esanahirik. «Taldea sortu genuenean, izen posibleen zerrenda bat egin eta bozkatuena hautatu genuen. Gerora jakin dugu *nunc* hitzak latinez orain esan nahi duela», esan du ibartarrak. «Izenaren sonoritatea gustuko genuen, eta gainera, ez zuen esanahirik. Gu gara Nunk, beste ezer ez. Horrela, nortasuna ematen diogu izenari», gaineratu du belauntzarrak.



Aitor Azkolain, Unai Garcia, Unax Larreta, Ion Garate eta Aitor Amonarriz, Nunk musika taldeko kideak. NUNK

«Izenaren sonoritatea gustuko genuen, eta gainera, ez zuen esanahirik. Gu gara Nunk, beste ezer ez»

ION GARATE
BATERIA-JOTZAILE BELAUNTZARRA

Metalcore generoa lantzen dute gehienbat. Garateren esanetan, intentsitatearen eta doinu melodikoen arteko oreka bilatzen saiatzen dira. «Harmonia asko zaintzen dugu. Guztiak ez du hain iluna edo hain gogorra izan behar. Bigarren ahotsarekin jolastuz eta teknika landuz, doinu estimulatzaileak lortu ditugula uste dut», nabarmendu du Azkolainek.

Genero hori Euskal Herrian nahiko luketena baino gutxiago entzuten bada ere, pentsatzen

dena baino talde gehiago daudela esan dute, eta orain asko ari dira ezagutzen. Taldeko kideen erreferentziazko talde gehienak, ordea, ingelesezkoak dira, eta horregatik, hizkuntza horretan idatzitako letrak abesten dituzte. «Kantuak euskaraz ere sortu nahiko genituzke, baina zaila izango da Unax konbentzitzea, oso britainiarra baita».

EGINDAKO LANAREN EMAITZAK

Lehen urteak «oso gogorrak» izan direla aitortu du Garatek. «Hiru urte igaro dira eta bi kantu bakarrik argitaratu ditugu. Burohauste ugari izan ditugu, baina aurrera egitea lortu dugu, eta oso pozik gaude emaitzarekin. Zenbait momentutan taldea uztea pentsatzera ere heldu ginen». Inflexio-puntu bat izan zela esan du Azkolainek. «Material ugari

«Bigarren ahotsarekin jolastuz eta teknika landuz, doinu estimulatzaileak lortu ditugula uste dut»

AITOR AZKOLAIN
GITARRA-JOTZAILE IBARTARRA

genuen, baina talde dinamika sortu eta erritmo jakin bat hartzea falta zen». Garateren ustez, hori da hain justu musikari batek behar duena. «Grabaketak egitea edota kontzertuak ematea, egindako lanaren emaitzak ikustea, alegia. Horri esker, une honetan, motibazio handiagoa dugu».

Deafmind eta *This is not a dream* dira taldeak orain arte grabatu eta argitaratu dituen kantuak. Lehena, asmatutako hitza da. «Garun gor bat zer litzakeen transmititu nahi genuen. «Gizar-

teak beti esaten dizu guztia egina dagoela eta ezin duzula ezer berria egin, alperrik ari zarela. Guk, ordea, garuna deskonektatu eta entzungor egiten dugu», azaldu du belauntzarrak. *This is not a dream* esaldiak, berriz, *Hau ez da amets bat* esan nahi du. «Blokeo momentu bat irudikatzen dugu kantu honetan, askotan geratzen garelako gauzak egin gabe edo esan gabe, beldurraren erruz», esan du ibartarrak.

DISKO BAT GRABATZEKO NAHIA

Une honetan, kontzertu berriak lotzen eta abesti berriak grabatzen ari dira, taldea ezagutzera eramatea baita lehentasuna. Hurrengo urtean zehar beste zenbait abesti argitaratu nahi dituzte. «Disko bat ere grabatu nahiko genuke, baina barne gatazka bat daukagu, gaur egun musika entzuteko beste modu batzuk daudelako. Hala ere, musikari edo talde batek disko bat ez izatea nahiko tristea iruditzen zaigu», adierazi dute.

Bi kontzertu egin dituzte oraingoz, Santurtziko Akelo gaztetxean eta Donostiako Mogambo aretoan. «Espero genuena baino erantzun hobea izan dugu, eta horrek indar handia ematen digu aurrera begira», azpimarratu du Azkolainek. Abenduaren 16an izango da eskualdean egingo duten lehen saioa; Bonberean ariko dira. «Gogo handia dut, estimu handia diodan tokia delako; etxean bezala sentiarazten nau. Kontzertuak entzuteko eta talde ezezagunak ezagutzeko ere toki oso aproposa da», esan du Garatek.



zozketak

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Leyma Coruña
partida ikusteko

Abenduak 10, igandea
17:00etan
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
San Pablo Burgos
partida ikusteko

Abenduak 22, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat
sarrera bikoitza dugu

Guuk Gipuzkoa Basket
VS
Grupo Alega Cantabria
partida ikusteko

Abenduak 29, ostirala
20:30ean
Angulas Aguinaga Arenan

Atarikideentzat **lau sarrera** ditugu



Pirritx, Porrotx,
Marimototsen
Ez Gara Jaitsiko
ikuskizun berria

Abenduak 16
larunbata, 18:30ean
Ordiziako
Majori kiroldegian

Zozketan parte hartzeko osteguneko 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **Ataria.eus**

Tolosaldea turismo helmuga inklusiboa da

Erredakzioa

Nazioartean aitortutako Queer Destinations Committed bereizgarria lortu du Tolosako Turismo Bulegoak, eta honenbestez, errekonozimenduak ziurtatu du sexu-orientazioa, genero-identitatea eta genero-adierazpena kontuan hartu gabe, guztientzako esperientzia «seguru eta abegikorra» bermatzen dela Tolosaldean.

Helmugaren Garapen Turistiko Iraunkorra sustatzeaz arduratzen den Tolosaldea Garatzeneko Turismo saileko lantaldean aniztasunarekiko errespetuaren balioa partekatzen dute eta horregatik parte hartu dute lantaldeko kideek bereizgarria eskuratzeko prestakuntzan, bisitariekiko harrera hobetzeko asmoz.

Horrekin batera, eskualdeko sektore turistikoko enpresak Euskadiko Kode Etikoa jasotako balioetara atxiki daitezela lan egiten dute Turismo sailean. Kode horren lehenengo printzipioak dio tokiko agenteek eta profesionalak bisitaria ezagutzen eta errespetatzen ikasi behar dutela, baita haien bizimoduari, gustuei eta espektatibei buruzko informazioa jasotzen ere. Eskualdeko enpresak balio horiekin lan egin dezaten sustatzen dute Tolosaldea Garatzeneko Turismo sailetik. «Profesionalei ematen zaizen prestakuntzak turistei harrera egiten lagunduko die».

Euskadiko Kode Etikoa nabarmentzen denez, turismoa garapen individual eta kolektiborako bitarteko pribilegiatu gisa ulertu eta praktikatu behar da, eta oro har, atsedenera, aisiari, kirolari

eta kulturarako eta naturarako sarbideari lotutako jardura da. «Beharrezkoa den jarrera irekia- rekin gauzatzen bada, autoikas- kuntza, elkarrekiko tolerantzia eta herrien eta kulturaren arteko desberdintasun legitimoak eta aniztasuna ikasteko faktore ordezkaezina da turismoa». Horregatik Tolosaldea Garatzenetik berdintasuna, inklusioa eta aniztasunarekiko tolerantzia sustatzeko urratsak ematen segituko dute.

ENPATIA HANDIAGOTUZ

Turismo sailak adierazi duenez, Tolosaldea helmuga inklusiboa izateko helburu lortu ahal izateko, LGTBIQ+ komunitatearen beharrezan inguruan sakontzeko aukera izan dute. «Garrantzitsua da kolektibo horretako pertsonak nola tratatu jakitea, diskriminazio- rik gabeko protokoloak sortuz eta hauek betearaziz, taldea prestatuz eta sentsibilizatuz, besteak beste, estereotipoen jabetuz, horiek hausteko».

Tolosaldeko turismo helmuga iraunkor eta inklusibo gisa garatzeko bidea indartu du Tolosalde- ak Queer Destinations Committed bereizgarria lortuta. «Orain hobeto ezagutzen ditugu beren berezitasunak, enpatia handi- goa dugu, beste edozein pertsona bezala tratatzen ditugu eta diskri- minazio egoerak prebenitzen di- tugu, komunitateko kideak Tolo- sako Turismo Bulegoan etxean bezala sentitu daitezela», esan dute arduradunek. Aldi berean nabarmendu dute, Tolosaldeak bat egiten duela diskriminazioa- rekiko zero tolerantziaren politi- karekin.



SAGARDOA BERTAKO LUPULUAREKIN

Adunako R. Zabala sagardotegiak %100 bertako sagarrarekin egindako sagardoa ekoizten du eta aurreko ostiralean produktu berria aurkeztu zuen jendaurrean: sagardo lupuluduna. Lehen aldia da Euskal Herrian %100 bertako lupulua erabilia sagardoa egiten dela. Hiru urte luze eman ditu sagardotegiak Aleo Vitro enpresa bioteknologikoarekin Sagardhopyng: sa- gardo naturala lupulatzen izeneko proiektua garatzen. J.M.

Sagardo dastaketa egingo dute igandean Adunan

Tolosaldeko Turismo sailak antolatu du ekitaldi gastronomikoa eta sagastiak bisitatu eta sagardoa dastatzeko aukera izango da

Erredakzioa Aduna


Tolosaldeko sagardo dastaketa egingo dute igandean Adunan. Herriaren erdigunetik abiatuko dute txangoa eta sagarrondo- en sekretuak arakatuko dituzte. To- losaldea Turismoa, Euskadi Bas- que Country Gastronomika eta Gipuzkoa Turismoak babestu dute ekitaldi berezia eta parte hartu nahi dutenek tokia erre- serbatu beharko dute 943 697

413 telefonora deituta edota tour@tolosaldea.eus helbidera idatzita.

Adunako Zabala eta Aburuza sagardotegietako sagardogileek gidatuko dituzte bisitariak ibilbi- dean zehar eta sagastien zaintza- ren inguruko lanak azalduko di- tuzte, besteak beste. Ondoren Unai Agirre Euskal Sagardoa izendapenaren koordinatzaile- rekin batera, Tolosaldeko sagar- doen dastaketa bat egingo dute:

Aburuza eta Zabalako sagardoez gain, Isastegi, Eguzkitza, Goiko- etxea eta Sarasolako sagardoak ere gehituko dira esperientziara.

«Tolosaldea sagardoen lurral- dea ere bada, eta bereziki saga- rrondo lurraldea», aipatu dute ekimenaren antolatzaileek. Bisi- tak bi orduko iraupena izango du eta edukiera mugatua denez le- kua erreserbatzeko deia luzatu dute. Igandean 11:00etan abiatu- ko dute ekimena.



Adinekoak zaintzeko eskaintzen naiz
TOLOSA
Azken eguneraketa: 2023-03-21

Neska euskalduna adineko pertsonak zaintzeko eskaintzen da. Tolosa eta inguruan lan egingo nuke. Esperientzia dut. Goizetan astelehenetik ostiralera. Harremanetan jartzeko deitu: [phone number]

Ez baduzu hanka sartu nahi, sartu zure iragarkia
IragarkiLaburrak.eus atarian



iragarki laburrak .eus

Hemen eta online

1903ko azaroaren 29an hondoratu zen 'Joven Julian' itsasontziaren erreplika egin du Iñaki Mezquita tolosarrak; abenduaren 15etik aurrera ikusgai egongo da Alegiako kultur etxean

Hondoratu zen altxorra, eskuz egina

R. Calvo / J. Artutxa Alegia

Ehun eta hogeit hamar urte betetzen dira gaur *Joven Julian* itsasontzia Kantauri Itsasoan hondoratu zela. 1903ko azaroaren 29a zen. Pasaiako portuan sartzera zihoala, Monpas parean, Donostiako Ulia mendi inguruan, ekaitzaren ondorioz, ezin izan zuen nabigatzen jarraitu. Hamabi marinela zihoazen eta bi txalupatan bizirik ateratzea lortu zuten. Galdutako bakarra txakur bat izan zen. Ezbeharrak jabetuta, marinela bere bila itzuli ziren, baina ez zuten aurkitu.

Kabotaje-ontzia zen *Joven Julian*; itsasontzi handia. Penintsula osoari buelta eman eta Herrialde Katalanetaraino joaten zen. Handik salerosgaiak ekarri ohi zituen bueltan Pasaiara. Goleta-brigantin belaontzia zen. Hiru masta edo gehiago izan ohi zituzten ontzi mota hauek, baina honek bi masta zituen; goletan zuen bestea. XIX. mendearen amaieran bizi izan zuten bere urrezko aroa; hain justu, 1888. urtean egin zuten Orion. Ondoren, 15 urtez aritu zen lanean. Bada, hondoratu eta 120 urtera, *Joven Julian* itsasontziko kapitainaren birbilobak eskatuta, barkuaren erreplika egin du Iñaki Mezquita Aranburu tolosarrak. «Ilusio handia zuela eta, niri eskatu zidan».

33 urte dira Mezquita itsasontzien egurrezko maketak egiten hasi zela, eta eskaera komertzialak nahiz enkargu pertsonalak tartekatuta izan ditu; esaterako, Donostiako zenbait dendatan salgai daude bere itsasontziak.

«Guztira, 60tik gora egingo nituen». Hala ere, eskaera komertzialek eta enkargu pertsonalek elkarren artean zerikusirik ez dutela aitortu du. «Denda bateko maketa bat egitea edo norbaitek ilusio handiz eskatuta egitea oso desberdina da. Emozio handiko prozesua izan da; uneoro egon gara harremanetan».

HISTORIAREN GARRANTZIA

Maketa egiten hasi aurreko prozesuari buruz galdetuta, Mezquitak esan du birbilobak itsasontziaren izena esan ziola, besterik ez. «Egingo nuela hitzeman baino lehen, ea dokumentatzea posible izango nuen kontsultatzen aritu nintzen. Gipuzkoako Ozeanografia Elkartean bazeuden itsasontziaren planoak; ez oso onak, baina bai baliagarriak. Horrez gain, garai hartako itsasontzien irudiekin eta liburuetako datuekin aritu naiz informazioa eta xehetasunak biltzen». Izan ere, maketen kasuan, eskulanaz gain, garrantzi handia du historiak. «Xehetasun guztiak oso ondo zaindu behar dira. Itsasontzi hau egiteko, Ingalaterratik eskatu nituen liburuak», nabarmendu du.

Itsasontzien planoetatik eskalak ateratzen dituzte maketagileek, benetan zein neurri zituen aztertu eta gero. «*Joven Julian* ontziak 26 metroko luzera zuen, eta enkargua egin zidan birbilobak neurritik egindako maketa nahi zuten, 104 zentimetro neurritik zituena. Hortaz, metro pasatxora egokitu behar izan ditut itsasontziaren neurriak».

Gaur egun, Alegian bizi da Mezquita, eta bertako kultur etxean jarriko du ikusgai make-

ta. Abenduaren 15ean egingo dute aurkezpena, 19:00ak inguruan.

HONDORATZEN ARI DEN OFIZIOA

Gipuzkoako Ozeanografia Elkartean bitartez hasi zen maketak egiten maketagile tolosarra. Jesus Mari Perona maisuarekin ikasi zuen. «Estimu handia diot. Hasi nintzenean oso gaztea nintzen, 30 urte inguru nituen, eta ordutik bere magalean hartu nau», adierazi du.


Urte hauetan guztietan, lan potoloak egin izan dituela aitortu du Mezquitak; besteak beste, Donostiako Londres hoteleko

33 urte dira Mezquita itsasontzien maketak egiten hasi zela; lehen 40 lagun ziren, gaur egun, ordea, 6-8

Ontzien planoetatik eskalak ateratzen dituzte maketagileek, benetan zein neurri zituen aztertu eta gero

maketak berritu izan ditu, eta Loiolako San Inazio etxeko itsasontzia ere berak egin da. Berak gogobetetasuna, poza eta ilusioa sentitzen du lanean ari den bakoitzean. «Horrelako maketa bat entregatzen dudanean, eta nola-ko aurpegiak jartzen dituzten ikusten dudanean, gozatu egiten dut». Hala ere, zaletasun txikia dagoela esan du, batez ere, lan hauek egiteak duen kostu ekonomikoagatik. «Gainera, maketak egitea ez da ospea ematen duen zeregin bat».

Mezquitarekin batera, 40 lagun inguru aritzen ziren jo eta su



Alegian duen lantegian ari da Iñaki Mezquita itsasontziaren maketari azken ukituak ematen. J. ARTUTXA



'Joven Julian' goleta-brigantin belaontzia Orioko ontzian, 1888an. J.M. PERONA

maketak egiten. Donostiako Aquariumeko eredugileak ziren, bertako Itsas Historia eta Modelismo Saileko kideak. «Bi urtez behin erakusketa egiten genuen Donostiako Boulevard Zumardian, Kutxa Fundazioak zuen egoitzan. Ehun maketa inguru

eramaten genituen». Gaur egun, baina, 40 horietatik 6-8 gelditzen dira, eta erreleborako ez du aukera handirik ikusten tolosarrak: «Lasaitasun handia behar da eta gaur egungo gazteek ez dute pazientziarik horrelako lanetarako».

Lehen zazpi partidak irabazita hasi dute liga

Eguzkitza Sagardotegia TAKE saskibaloit taldeak oso ondo ekin dio denboraldiari; igoera fasean sartzea du helburu

Imanol Garcia Landa Tolosa

Eguzkitza Sagardotegia TAKE taldeak ezin hobe ekin dio ligari, lehen zazpi partidak irabazita. Mikel Lakunza entrenatzaileak azaldu duenez, «ez genuen espero horrela hastea denboraldia. Egia esan oso ondo hasi ginen lanean, eta bazen taldearen helburua sailkapeneko goialdean izatea, baina inondik inora ez genuen espero lehen zazpi partidetan zazpi garaipen lortzea». Gipuzkoako lehen mailan ari da parte hartzea taldea, eta ligagan hamabi talde daude guztira. TAKEkoak bigarren postuan daude, lehen postuan dagoen CD Internacional taldearekin berdinduta. «Lehen jardunaldia Mondragon Unibertsitatearen aurka jokatu genuen. Espero genuen talde indartsua izatea eta garaipenarekin hasi ginen, eta horrek indar handia eman zigun lanean jarraitzeko», esan du Lakunzak.

Taldearen *blokea* mantendu da eta horri garrantzia handia eman dio entrenatzaileak. Nerea Elosegik kapitainak eta Izaro Arratek taldea utzi dute, eta hiru jubenil igo dira lehen taldera:



Eguzkitza Sagardotegia TAKE eta Mondragon Unibertsitatea, lehen. A. AYASTUY

Izaro Huici, Jone Maiza eta Maier Lizarralde. Horiez gain Natale Iruariz ordiziarra hasi da taldean. Lakunza berak lehen urtea du emakumezkoen lehen taldeko entrenatzaile moduan. «Harrobiko taldeetan aritu naiz entrenatzen, azken zortzi urte ingurutan, eta aukera hau sortu zenean, oso pozik hartu nuen», azaldu du.

Taldearen helburua ligako lehen lau postuen barruan sartzea da. «Hasieratik igoera fasea jokatzeke helburua zehaztu nion taldeari», esan du entrenatzaileak.

«Maiatzean jokatuko da igoera fasea eta ligako lehen lau taldeek parte hartuko dute bertan». Asteburu batean finalerdiak jokatuko dituzte, partida batera, eta ondoren finala jokatuko da, hau ere partida batera. Finalaren irabazlea mailaz igoko da. «Kontua da urtean zehar ondo egotea eta goran mantentzea, hori lortzeko bidean gaude eta uste dut lortuko dugula», esan du Lakunzak. «Eta gero igoera faseko bi asteburu horietan ahal dugun ondoen egon eta ahal dugun ondoen lehiatzea espero dugu».

Frontenis txapelketako finalak, larunbatean

I. Garcia Landa Berrobi

XXXI. Ion Ander Izagirre Frontenis Txapelketako finalak jokatuko dituzte larunbat honetan, Berrobiko frontoian. II. Frontenis Txiki txapelketaren finalak ere egun berean jokatuko dituzte eta horiekin hasiko da jardunaldia, 14:45etik aurrera. Ibin Kirol Klubak antolatzen ditu txapelketak, eta bertako kidea den Oihane Vergarak azaldu duenez, «oso kontentu gaude txapelketa aurrera ateratzen delako urtetik urtera, eta urtero ere oso jende fidedula dugulako hau dena aurrera ateratzeko». Sona badu frontenis txapelketak, eta maila handiko partidak ikusteko aukera izango da larunbatean jokatuko diren finalak.

Haurren txapelketan hiru maila izango dira. LH1 eta LH4 arteko mailan, banaka, Eki Altuna eta Amets Altuna ariko dira; LH5 eta DBH2 artekoan, binaka, Ibai Larrañaga eta Eneko Gabarain bikoia Markel Garmendia eta Imanol Sotil bikoaren aurka; eta adin horretan banaka, Eneko Gabarain eta Markel Garmendia ariko dira. Helduen mailan, mutiletan binaka Hodei eta Jon An-

der Arregi anaiak Iñigo eta Aitor Irisarri anaien aurka ariko dira; mistoan Leire Jauregi eta Xabi Zubiria bikoia eta Nagore Lizardi eta Niko Artola bikoia ariko dira; emakumezkoetan binaka, Oihane Vergara eta Elena Artieda bikoia Leire Jauregi eta Eider Otegi- ren aurka ariko da; mutiletan banaka Hodei Arregi eta Xabi Zubiria ariko dira elkarren aurka.

Zenbait izen errepikatzen dira urte batetik bestera, eta finaletan ere pilotari pare bat bi alditan ariko dira lehen. Txapelketan mugatu egin zituzten partidak denboraren aldetik, baina finaletan markagailuak bakarrik aginduko du. Horrela, 30 tantora jokatuko dira finalak.

Sari banaketa, bai haurren zein helduen txapelketena, final guztiak jokatu ondoren egingo dira. Ondoren, antolatzaileek eta nahi duten parte hartzaileek afaria egingo dute. «Hori dagoeneko tradizio moduko bat da; hainbeste egun eta ordu frontoian pasa ondoren, aukera ematen digu mahaiaren bueltan lasai elkarrekin egoteke eta giro ona sustatzeko denon artean», zehaztu du Vergarak.

Home, sweet home

Aulkitik

Lorea Rueda

Tolosa CF, 3. RFEF maila

Estreinaldi gozoa Usabalen, beharrezkoak genituen hiru puntuak etxean gelditu zirelarik.

Behar genuen. Behar genuen Usabal ireki zezaten, behar genuen etxera bueltatzea, behar genuen zalegoaren babesa eta behar genuen berriro konfiantza emango zigun garaipen bat.

Joan den asteburuko jardunaldian atsedenaldia izan ondoren, gogoz eta ilusioz ekin genion asteari. Izan ere, aste honetan Usabalen irekierarekin batera, taldea etxera bueltan zen, eta, horrekin batera, aurten taldera etorri garen taldekide berriek Usabal ezagutzeko aukera genuen.

Esan bezala, asteartean ilusioz ekin genion larunbateko partida prestatzeko lan saioari. Entrenatzeraz irten bezain laster, egundoko euri jakas harrapatu gintuen arren, ez zigun batere axola, denboraldian lehenengo aldiz entrenamenduaren ondoren dutxatzeko aukera izango genuelako; beraz, zenbat bustiko ginen arduratzeaz utzi, eta entrenamenduan jarri genuen arreta. Beharrezkoa zen kontzentratuta ego-

tea. Izan ere, jada ez geunden Alegiako Elorri futbol zelaian. Usabalgo dimentsio eta belarretara ohitu eta jokatzeke modua aldatu behar genuen, eta, dirudienez, asteko lan horrek asteburuan eman du bere fruitua.

Iritsi zen partida eguna, eta denok genuen urduritasun puntua; denboraldiko lehen partida zen Usabalen, zalegoaren aurrean. Beraz, urduritasunak alde batera utzi eta beroketa txukun baten ostean, Parquesolen aurkako partida hasi genuen. Bagenekien lan handia egin beharreko partidak izango zela eta atzean egindako akatsak garesti ordaindu genitzakeela. Aukera askorik gabeko partida izan zen bi taldeentzat. Baloia jabetza guk izan genuen arren, jokaldiak errematatzea falta izan zitzaigun

eta lehen zatian izan genuen aukera garbientakoa korer batean etorri zen: Izarok area txikian jarritako baloiak boteka ihes egin zuen errematatzaileak aurkitu gabe, beraz, atsedenaldira hutske berdinketarekin joan ginen.

Bigarren zatian ere, antzeko jardun ginen eta denbora aurrera zihoan heinean iristen ez zen golaren bila jarraitzen genuen. Aukera garbirik izan ez genuen arren, beraiek ere ez ziguten arrisku handirik sortu; izan ere, Marenek, gure atezainak, ez zuen geldiketarik egiteko beharrik izan, eta ukitu zituen baloi guztiak hankarekin izan ziren, tartean, aurkako korer bat izan genuelarik. Partida amaieran, golik ikusiko ez gurela pentsatzen genuenean, 90. minutuan egindako presio altu baten oste-

an, Izarok baloia berreskuratu zuen, Irantzuren laguntzarekin defentsari izkin egin zion eta area barruan jarri zuen baloia Leyrek buruz sareetara bidali zuen. Partida amaitzeko luzape-na soilik falta zen arren, ezin genuen kontzentrazio maila jaitsi, ezin genuelako inongo hanka sartzerik egin; beraz, epaileak amaiera adierazi artean lanean jarraitzea besterik ez zitzaigun geratzen.

Amaiera guk nahi bezain azkar adierazi ez zuen arren, epaileak hiru txistuak jotzean ospatu genuen garaipena, merezitako hiru puntuak etxean geratu baitziren. Hainbat partidatako porroten ostean, taldeak behar zitu- en 3 puntuak eta baita etxera, Usabalera, itzuli eta zalegoaren berotasuna sentitzea ere.



ASTEAZKENA, 2023KO AZAROAK 29
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaledea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arreata zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Edoñ, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



ASTEAZKENA 29

AGENDA

Deialdiak

Anoeta. Herritarron hizkuntza eskubideak auzitan hitzaldia, udaletxean, 18:00etan.
Berrobi. Emakumeen topaketa: *Dolu emozionala ulertzen hitzaldi-tailerra*, etxolan, 17:00etan.
Ibarra. Izaskun Mujikaren ipuin kontaketa saioa, liburutegian, 17:30ean.
Ikaztegieta. Batzar irekia etxebizitzariburuz, udaletxean, 18:30ean.
Larraul. Zer egin dezakegu gure haur eta nerabeek sexualitate aske eta osasuntsu bat izan dezaten? hitzaldia, 18:00etan.
Lizartza. Balerdipekoen tailerra, elkartean, 18:30ean.
Tolosa. Gipuzkoako Anfibiok Imin-tegia, Antxon Bandres bidaiarien txokoa, 18:00etan.
Tolosa. Nola atera gaitezke eraso judizialen labirintotik? hitzaldia, kultur etxean, 18:30ean.
Tolosa. Dina bidaiak beka 2023 aurkezpena. Bidaiarien txokoa, 19:30ean.

Antzerkia

Tolosa. 41. Titirijai jaialdia: *Pinocchio*, 10:30ean eta 12:30ean, Topic-en. (Eslovenia, 5 urtetik aurrera, gaztelaniaz. Objektu txotxongiloak). *Estacion paraíso*, 20:00etan, Topic-en. (Granada, 8 urtetik aurrera).

Zinema

Alegia. Alegiako Gaztetxeko Zinekluba, 17:30ean: *Etxean bakarrik*.

ATARIA IRRATIA

09:00. Eguraldia. Iker Ibarluzea.
10:00. Hitzez Hitz. Galtzaundi.
12:30. Pasahitza. Albisteak.
14:00. Telesailak eta zinema. Alain Rekondorekin.
18:00. Desafioa. Herri kirolak.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza.

28 KANALA

12:30. Ur eta lur.
13:30. Tolosaldea gertutik.
17:00. Irakasle gaiztoak antzerkia.
19:00. Elkarriketap.
21:30. Tolosaldea Gertutik.
22:00. Azokatik mahaira - Zumarra-ga.

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. L. Lejeune Ma-set. Euskal Herria, 24. 943 67 32 74.
TOLOSA. Gauekoa. L. A. Morant. Zabalarteloretegiak, 1. 943 67 38 49.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Giro lasaia. Goizean goi-hodei batzuk izanagatik, ostarte zabalak eta giro argia nagusituko dira. Arratsaldeko lehen orduetan antzeko giroa izango da, baina ilunabarretik aurrera hodeiak ugarituko dira. Dena den ez du euririk egingo. Hego-mendebaldeko haize bizia nagusituko da eta tenperaturak gora egingo du, 16-18 graduan joz goia. Azken orduan haizeak ipar-mendebaldeko egingo du.

Bihar. Giro kaxkarragoa. Goizean hodeiak oso ugariak izango dira eta euri giroa izango da, non zaparrada ugariak eta mardulak botako dituen. Arratsaldean zehar zaparradak tartekatukoak eta ahulagoak izango dira, aterrune politak izango direlarik. Mendebaldeko haize bizia nagusituko da eta tenperaturak behera egingo du, 13-15 graduan joz goia. Arratsaldean nabarmen freskatuko du.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Pernando Amezketa eguna ospatuko dute

Bere heriotzaren 200. urteurrenaren harira, hainbat ekitaldi izango dira larunbatean; kultur etxeari bere izena jarriko diote



'Gerra omen zetorrek! Ederrak egin dizkinagu! antzezlanaz plazaratu zuten 2022an Amezketako hainbat herritarrek. I. A.

Erredakzioa Amezketa

Pernando Amezketarraren eguna ospatuko dute larunbatean Amezketan. 200 urte bete dira bertsolaria hil zela, eta horren harira antolatu dute egitaraua. Goizeko hamaiketan hasiko dituzte jarduerak eta besteak beste Pernandoren ibilbidea, antzerkia eta bertsoak izango dira.

Ekitaldi nagusia 12:30ean egingo dute herriko kultur etxean; Pernandoren izena emango diote eraikinari. Jarraian Bixente Gorostidi eta Peña bertsolariak ariko dira, eta azken jarduerak talo jatea izango da.

Antolatzaileek Pernando Amezketarraren «dohainak»

ekarri dituzte gogora. «Alproja eta zirtolari ezaugarriak nabarmendu badira ere, Fernando hori baino askoz gehiago ere bazen, bertsolaritzan aitzindaria eta gizon zinez azkarra». Horrez gain, Amezketaren izena «lau haizeetara» zabaldu zuela ere aipatu dute, eta «herri xehearen aldeko portaera» izan omen zuen, jauntxoaren «sasi jakinduriaren» aurrean.

Uztailaren 9an bete ziren 200 urte hil zenetik. «Ez dakigu segurua esan izan diguten bezala araneekin betekada egin, ura edan eta haren ondorioz, edo bestelako gaitzen batek erasanda hil zen, baina gauza jakina da 1823ko uztailaren 9an itzali zela

Amezketako bertsolari handia», adierazi dute.

Pernando Amezketarra, izenez Fernando Bengoetxea Altuna, 1764ko urriaren 10ean jaio zen Amezketan. Bertsolaria eta plazagizona izan zen. Bere ateraldi umoretsuengatik, bizitasunagatik eta argitasunagatik oso ezaguna izan zen Gipuzkoan. Oso bertsolari eta gizon berezia izan zen, eta haren bitxikeriak eta ateraldi xelebreak Gregorio Mujikak jaso zituen behin eta berriro berrargitaratu den *Pernando Amezketarra* izeneko liburuan. 1990eko hamarkadan, berriro, marrazki bizidunak ere egin ziren haren pertsonaia oinarrituta.

ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
-
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Erabili meloia

Ez egin erosketa oldarkorrik

Kontsumitu buruarekin
#KontsumitzenJakin

kontsumoBIDE
KONTSUMOKO EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO

Eusko Jaurlaritzako
GOBIERNO VASCO

www.kontsumobide.eus